

AMETSEN BIDAIDE

Olatz Mitxelena Larreta, 14 urte

Oiartzun

Zure irribarrearekin
amesten dudan aldiro
egunsentia
katilukada bat haize gozo eta barez
agurtzen dut,
tristura eta haserre guztiak
labainkada batez
erraietatik ebaki
eta bizitzeko aukerarik gabe
utziko banitu bezala.

Zure begiradarekin
amesten dudan aldiro
egunsentia
eguzki izpi sarkor batez
argitzen dut,

iluntasun eta gorroto guztiak
putz eginez
hemendik at,
ene bihotzetik haratago
bidaliko banitu bezala.

Horregatik,
zuregan aurkitu nahi dut
zure laztanen berotasuna,
musuen goxotasuna;
zuregan,
zure besoen babes
gaurik ilunenetan,
ekaitzik bortitzenetan.

Enetzako
ez baitu
argituko egunak
ez eta
barealdirik hartuko ekaitzak
zure laztanen berotasunik,
musuen goxotasunik,
zure besoen babesik
ez badut;
baina
koldarkeriaren itzal bihurturik,
ez naiz ausartzen
zugana iristeko,
zure bihotzaren taupadak dastatzeko
urratsik ematera.
Sinistu nahi ez dudan arren

zukanako maitasuna baino
gehiago,
indartsuago
da.

Bitartean, ordea,
hemen naukazu,
zure zain
egunak aurrera doazen heinean
eta hemen jarraituko dut,
itsasoaren kresal usainaz
eta eguzkiaren errainuez
babesturik,
zure zain,
maitasunaren erraiak herdoildu
eta bizitzari
agur esaten diodan arte.

Baina orduan ere
bihotz herdoilduko zirrikituetan
ezkutatutako,
gordetako,
oroitzapenetan
edukiko nauzu
zure zain.

Beraz,
koldarkeriaren itzal izan baino
nahiago dut
ametsen munduan murgildu
eta hauen bidaide izan,

maitasunaren erraiak herdoildu
eta bizitzari
agur esaten diodan arte.